# Zurriolako Ataria

91. alea 2020-03-06

## Astebeteko oroitarazpena




Astebeteko kanpaina txikiaren bitartez, euskararen erabileraz ohartarazteko kartelak agertu dira ikastolako eraikin guztietako pasiloetan eta atarietako paretetan. Ikasleei eta gurasoei gogorarazi nahi izan diegu euskaraz aritzea dela euskararen alde egin dezakegun ekintzarik onena.

## Martxoaren 8aren bezperatan



Astean zehar hainbat ekintza burutu dira igandeko Emakumearen Egunaren itzalpean eta etapa guztietan modu anitzetan landu da gaia.

## Tabakalerako UBIKen LH4koak



LH4koak zibilizazioen gaiarekin lotuta UBIK-en egon dira Arabia gaia lantzen. Motordun noria bat eraikitzen ari dira, ea nola ateratzen zaien!

## Tabakalerako REC tailerrean DBH4koekin



Otsailean zehar DBH4ko Ikusentzuneko ikasleek Tabakalerako Hezkuntza sailak proposatutako REC lantegian parte hartu dute. REC bideogintzaren inguruko lantegi teoriko-praktikoa da, identitate eta autoirudikapena lantzeko zinema esperimentala abiapuntutzat hartzen duena.

## Zurriola Ikastola EHIko udako ingeles udalekuen egoitza



Honez gero eskuragai duzue Ikastolen Elkarteko udako aisialdi eskaintza. Aurtengo **berrikuntza**, ordea, zera da: Zurriola Ikastolan bertan antolatuko dira ingeleseko udaleku itxiak. Bi txanda izango dira 2006 eta 2007an jaio direnentzat.

## OHARRAK / AGENDA:

- **LH2:** EITBra irteera. Goizez. A taldea martxoak 10 eta B-C taldeak martxoak 11.
- **DBH4:** Bihotz biriken berpizketa ikastaroa. Martxoak 12.
- **DBH4:** Orientazio akademikoko saioak gurasoentzat. Martxoak 17. 18:00. Hurrako jangelan.
- **BATX1:** Sexu heziketa 2. saioa. Martxoak 12.
- **Eskola Kirola:** 16. jardunaldia. A eta B.
- **STARTinnova Day:** Zurriola Ikastolako parte hartzea. Hitzaldia. Martxoak 10. Informazioa.
- **Zurriola Musika eta Dantza Eskola:** Musika egiten duten HH4 (Jolas musika) eta HH5eko (Musika txokoa) guraso bilera. Martxoak 13.
- **Errigora:** Udaberriko kanpaina. Martxoaren 12ra bitarte.
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** Martxoak 6-8.
- **Groseko Haurtxokoa & Gaztelekua:** Martxoko programazioa.
- **Oporrak Bakean:** Haur Sahararren harrera programa.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. Auzoan. Orokorra. Zirkularra.
- **COVID-19:** Garbitasun eta segurtasun protokoloa.




**Izen ematea Udalekuetan**: Online / Paperezko matrikulazio fitxa
**Irlandako egonaldietan matrikulazioa**: Online
**Informazio gehiago** bertan




**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587